## PERLAS

TCM El cine que ya tenías que haber visto

THE HOAX

# Vidas públicas y mentiras oficiales



Hay personajes que continúan siendo un misterio muchos años después de muertos, y Howard Hugues es uno de ellos. Basada en hechos reales, la película de Lasse Hallström *The Hoax* se acerca al fraude de un escritor sin escrúpulos, Clifford Irving, interpretado por el flamante Premio Donostia Richard Gere, que intenta sacar tajada de una supuesta biografía autorizada del excéntrico millonario norteamericano, sin tener en cuenta que cuando se alcanzan determinados niveles las vidas privadas, los intereses públicos y las razones de Estado se mezclan, y este cóctel puede ser peligroso. Eran además años convulsos para la sociedad norteamericana, con una guerra que no marchaba nada bien, y un presidente, Nixon, que empezaba a estar tocado y al que el escándalo Watergate, del que, según la película, Hugues no estaba muy lejos, acabaría por derribar.

*The Hoax* es una película que se apoya en unas convincentes interpretaciones, y no sólo de Richard Gere. Mención especial merece el trabajo de Alfred Molina en el papel de Dick Suskind, el sufrido amigo de Hugues. Por otra parte, el cine basado en hechos reales debe superar unas dificultades obvias y tener en cuenta la memoria de la gente para ser creíble. Hallström, con una larga trayectoria tanto en el cine europeo como en el estadounidense, tiene la suficiente experiencia como para salir airoso del desafío y presentar una interesante película en la que se muestra hasta dónde puede llegar una persona con tal de lograr fama y dinero, además de las implicaciones que todo ello puede tener en determinados contextos históricos. **M.B.**

## BEREZIAK

PERFORMANCES

# Reflexiones sobre el amor



*Performances* es una miniserie, de seis capítulos, realizada por el director Per Fly para la televisión danesa. Su director es sobradamente conocido entre nosotros, a través, precisamente, del Zinemaldia donostiarra, al haber presentado y obtenido diversos premios con los filmes *La Herencia* (2003) y, más recientemente, con *Homicidio impremeditado* (2005).

La serie, que contiene como eje central de su argumento toda una sucesión de reflexiones sobre el amor, gira alrededor de Marko, un vanguardista director de escena que está preparando, junto con un grupo de actores, el estreno de *Venus y Adonis*, de William Shakespeare, en el teatro Sortedam.

Cada episodio tiene un protagonista distinto (Jakob, Tanja, Katrina, Jens, Eva y Marko) en el que se analiza la relación que cada uno de ellos establece con el resto del grupo, y sobre todo con su director, y el modo como todo ello va marcando sus vidas.

La confusión que siente Jacob, el protagonista de la obra, al darse cuenta de los sentimientos que alberga hacia Tanja, su compañera de reparto; las contradicciones y las dificultades que encierra la decisión de abandonar al hombre al que se ama; la necesidad que siente cada persona de ser reconocida y valorada por lo que es; el ansia de querer redimir a la familia; los quebraderos de cabeza y las dificultades que supone la gerencia de un teatro de estas características, máxime cuando los representantes políticos barajan la idea de cerrarlo; el miedo de traicionar a un compañero; los demonios que acompañan la situación afectiva del director; la soledad y la necesidad de seguir creyendo en el amor… son algunos de los temas que analiza la serie, sin que falten por ello ecos de la temática bergmaniana.

Excelente la interpretación de todo el elenco artístico de esta obra que demuestra que es posible realizar otro tipo de programas televisivos, alejados de los esquemas a los que nos tienen acostumbrados las series españolas y estadounidenses.

**Xabier PORTUGAL**

## NUEVOS DIRECTORES

Fundación Altadis

BRICK LANE

# Sorterritik urrun, hiri arragoan

Ama hil ondoren imposaturiko ezkontza baten ondorioz, Bangladesh utzi eta senarrarekin Londresko auzo batera joan behar du bizitzera.hamazapi urteko neska gazte batek. Sorterrian bere ahizpa gelditu da, eta urteetan zehar eskutitzen bidez izanen dute elkarren berri. Monica Ali idazlearen liburu arrakastatsu batean oinarriturik, modernitatearen erdian kokaturiko ghetoetan ezinbestean tradizioari eutsi behar izan dioten emakume indiar, pakistandar eta bangladeshtar askoren drama islatu nahi izan du Sarah Gavronek Brick Lane izeneko filmean, eta emaitza guztiz erakargarria da.

Asko idatzi da Asiako etorkinek Britainia Handian eta bereziki Londresen bizi izandakoaz. Asiar jatorriko idazle ugarik lortu dute ospea azken urte hauetan, esate baterako pakistandarrak bizi diren auzoetako bizimodua liburu eta gidoi bikainetan kontatu duen Hanif Kureishik, eta, jakina, ezin ahaztu Salman Rushdie, "Gauerdiko seme-alabak" nobelarekin bere ondorengoei nolabaiteko eredua erakutsi ziena. Gaur egun Erresuma Batuan sortzen den literaturaren zati handi bat kolonia ohietatik iritsitakoen seme-alabek edo bilobek idatzitakoa da. Dena dela, errealitatea ez da beti samurra eta pakistandar edo indiar asko ghetoetan pilatuta bizi dira aurrera ateratzeko aukera handirik gabe.

Beste alde batetik, ez da batere erraza hiri moderno eta globalizatu batean bizitzea eta aldi berean aspaldiko ohiturei jarraitu behar izatea. Horrek gaurko gizartearen hainbat drama sortzen ditu; esate baterako, emakume ugari hil dituzte Mendebaldeko herrialdeetan ustez familiaren ohorea zikintzeagatik, hau da, gurasoek onartzen ez zuten mutil batekin ateratzeagatik edo ezkontzeagatik. Etxe asko, familia asko, guztiz hertsita bizi dira eta berdin zaie Londresen edo Rawalpindin izatea, hiria, mendebaldea, diru gehiago lortzeko bakarrik erabiltzen dutelako, ez garapen pertsonala bultzatzeko. Eztabaida biziak sortu dira etorkinen integrazioaren inguruan, eta seguro aski hau ez da horreterako tokirik aproposena, baina garbi dago hormak altxatuagatik gizarte ireki batean pertsonak askatasunerantz joko duela, nahiz eta horrek arazoak eta kontraesanak ekarri.

Eta bitartean hor ageri zaizkigu elkarren ondoan Internet eta inposatutako ezkontzak, rock and rolla eta klitorisaren ablazioa, emepe hiruak eta burkak, yihad-a eta moda gotikoa, ohorearen izenean burututako hilketak eta feminismoa… Konplexutasun hori guztia eleberri nahiz pelikula batean islatzea ez da lan makala, eta Sarah Gavronek lortu egin du. **M.B.**

10+4 (DAH BE ALAVEH CHAHAR)

# Bizitzaren erruleta txoferraren eserlekutik

Komunikabideetan Irani buruz kontatzen zaiguna eta bertako zinea alderatzen baditugu, zerbaitek huts egiten duela iruditzen zaigu. Izan ere, Mendebaldeko egunkariek eta telebistek ayatolek ezarritako erregimenaren jazarpen politiko eta erlijiosoa edo emakumearen zapalkuntza azpimarratzen dituzten bitartean, Abbas Kiarostami handiak eta haren atzetik datozen zuzendari guztiak askatasun osoz aritzen direla ematen du, baita agintariak edo herrialdearen egoera kritikatzerakoan ere. Eskola berezi bat sortu dute iraniarrek, eta eskola honen fruitua azken urteetan mundu guztiko zinemaldietan lortutako sari kontaezinak lirateke.

Mania Akbari Kiarostamiren agindupean aritu zen Ten filmean, eta nolabait eredu eta jatorritzat hartu du maisuaren lana. Hasiera batean ikuspegi bakarra izanen dugula ematen du, hau da, gidariarena. Horrela, bere ondoan daudenak eta leihatiletatik edo aurreko kristaletik ikusten dena baizik ez dugu izanen begien aurrean, baina hasieratik jakinen dugu begiratzen duen emakumea gaiso dagoela eta minbizia duela. Semea ageri da lehendabizi eta hor ematen zaigu gaitzaren berri, beste gauza batzuen artean buru soilduez mintzatzen baitira. Negarrari eutsi ezin dion lagun batekin hizketan ikusiko dugu ondoren, kotxearen barrenean beti, adiskidearen tristeziaren aurrean gidariak bizitzaren gauza ederrak goraipatzen dituelarik. Horrela, oinazearen inguruko hausnarketak eta eguneroko bizitzari buruzko iruzkinak modurik naturalean tartekatuko dira, mina ikaragarria denean ere beste zerbaitetan pentsatu beharra baitauka gizakiak. Ordurako kontraplanoak ematen hasi zaigu jada zuzendaria eta protagonistaren erretrato zehatza lortu dugu.

Minik ez duenean gidatzea maite duela dio protagonistak, eta pelikularen zatirik handienean ez da txoferraren eserlekutik mugituko, baina momentu batean taxi baten atzeko eserlekura pasako da, semearekin edo lagunekin gaisotasunaz eta bizitzaz hitz egiteari utzi gabe. Esan liteke Mania Akbariren pelikula hau road-movie bat dela, nahiz eta ez diren hiritik ateratzen. Pertsonaien pentsamenduez gain, gaur egungo iraniarren bizimodua ere ageri zaigu kotxearen bestaldean. Eszena batean motorrez doan moralaren zaindarietako batek jakin nahi du Akbariren pertsonaia gizonezkoa edo emakumea den, buru soilduan txano txiki bat besterik ez baitarama, eta beste momentu batean oso argi hitz egiten da emakumeek laguntzarik gabe aurrera ateratzeko dituzten zailtasunei buruz. Ez da beharbada Jafar Panahi-ren *Zirkuloa*-rena bezain salaketa argia, baina beste pelikula mota baten aurrean gaude hemen.

Pelikularen bukaera aldera kotxetik ateratzen da pertsonaia. Gaisotasunak aurrera egin du eta teleferiko batean nahiz ospitaleko gelan ikusiko dugu. Eta gero beltza nagusituko da, beltza eta erruleta errusiar anker batez hitz egiten duen ahotsa.

Iranen Kiarostami besterik ez zegoela ematen zuen garaitik kalitate handiko zinegile ugarik osaturiko unibertso batera pasa da herrialde hau. Hasieran esan dugun bezala, komunikabideek diotena diotela, maiz ematen du beste inon baino zine libreagoa egiten dutela iraniarrek, eta hala ulertu dute mundu guztiko zinemaldiek, nahiz eta ikuslego zabal batengana iristeko asko falta den. Momentuz, gaurko zine iraniarraren delikatessenaz goza dezaketenek ez dezatela galdu aukera. **M.B.**